

MATAZAK

AZPEITIKO EMAKUMEEN OROIMEN HISTORIKOA



AURKIBIDEA

SARRERA

ABIAPUNTUA

GELDIALDIAK.....

1. IKASTOLAKO ANDEREÑOAK ETA AUZO-ESKOLAK

AUZO-ESKOLAK

2. ALPARGATERAK

3. NESKAMETZA ETA ZERBITZARIAK.....

4. EMAKUME BASERRITARRAK

5. DENDARIAK.....

6. TELEFONIKAKO LANGILEAK

7. ANTZERKIA ETA DANTZA. KULTURGINTZA

EUSKAL DANTZAK

ANTZERKIGINTZA.....

8. LIXIBERAK

9. POLITIKAGINTZA.....

ITXIERA.....

ESKERTZAK

.....	3
.....	7
.....	9
.....	11
.....	19
.....	25
.....	33
.....	39
.....	49
.....	59
.....	61
.....	64
.....	71
.....	79
.....	87
.....	89

SARRERA

“*Matazak*” izeneko proiektua Azpeitiko Emakumeen Mahaian egindako ekarpenetatik harilkatzen hasi zen lana dugu. Gauzak horrela, bertan ereindako hazia ernatu eta, egun, hamarnaka emakumeren inplikazio, lan eta testigantzari esker, eskuetan duzun liburuaz gozazenezake. Honekin, Azpeitiko emakumeen ekarpen historikoa nabarmentzen eta aitortzen hasteko lehen pausoak eman nahi dira; azken buruan, emakumeen esperientziak, bizipenak, rolak... bigarren mailako plano batean utzi izan ditugu kontakizun historikoetan. Izan ere, gizonen bizipen, garaipen eta balentrietan zimendatutako kontakizunak hedatzen dira batez ere, bereziki gerra garaietan girotutakoak gainera. Hargatik, Matazak-en bitartez, egungo gizartearen eraikuntzan emakumeek egin duten ezinbesteko ekarpena alde batera ez uztearen garrantzia nabarmentzen da.

Laburrean esanda, ekimen honen bitartez, ohiko kontakizunen mugak hautsi nahi dira, emakumeek Azpeitiko historian izan duten funtsezko papera azpimarratuz. Emakume horiei merezitako aintzatespena ematea da asmoa, beren istorioak eta jardunak narratiba historikoan leku nabarmenera igoz. Oraingo honetan, 9 kolektibo ezberdinetan jarriko

da fokua: ikastolako zein auzo eskoletako andereñoak, alpargaterak, neskame zein zerbitzariak, baserritarrak, dendariak, telefonikako langileak, antzerkigile zein dantzariak, lixiberak eta, azkenik, politikagintzako militanteak. Edonola ere, jakin badakigu hau hastapena besterik ez dela eta oraindik badaudela emakume kolektibo andana beraien historia kontatzeko zain. Ekimen honek atea ireki nahi ditu kontakizun gehiago sor daitezen, komunitatean emakumeen esperientzien aniztasuna eta aberastasuna azpimarratuz. Etengabeko ekintzarako deia da, baztertuak izan diren narratibei ahotsa emateko konpromiso iraunkorra.

Bestalde, nabarmendu nahi da proiektu honen atzean ikerketa-talde kontsolidaturik ez dagoela, hori izanik bere berezitasunetako bat. Prozesu osoan zehar, hainbat emakumek gidatu dute ekimena, adin, esperientzia eta testuinguru ezberdinetakoak guztiak. Ikuspegi horien amalgama ezinbestekoa izan da proiektuaren norabidea marrazteko eta modu esanguratsuan aurrera egiteko. Ikuspegi deszentralizatu horrek, atipikoa bada ere, malgutasun eta aniztasun handiagoa ahalbidetu du, eta ñabardura ugari eskaini dizkio gure lanari.

Azkenik, garrantzitsua da azpimarratzea idazki honek bildutako esperientzien isla esanguratsua eskaintzen badu ere, ezinezkoa izan dela

prozesu honetan guztian zehar lortutako informazio-aberastasuna bere osotasunean jasotzea. Partekatutako istorioak, ikuspegiak eta bizipenak zabalak eta konplexuak dira, eta informazio garrantzitsuena osorik eta modu esanguratsuan aurkezten saiatu bagara ere, lan honek esperientzien altxor zabal baten azalera apenas urratzen duela onartzen dugu. Emakume bakoitzak ekarpen bakarra egin dio proiektu honi, eta ziur gaude, orrialde hauek mugak izan arren, bere eraginak gainditu egiten duela, narratiba baliotsu horiek babesten eta balioztatzen lagunduz.

Beraz, has gaitezen haritik tiraka...

ABIAPUNTUA

Abiatzear zaudete Azpeitiko emakumeen oroimena berreskuratzeko ibilbidea. Pausoz pauso eta elkarrekin egingo dugun ibilbidea. Ibilbide fisikoa, baina, baita ibilbide sinboliko eta aldarrikatzailea ere.

Azpeitiko emakumeek herriari egindako ekarpena bistaratu eta aitortu nahi dugu, hainbat esparrutan jardun duten emakumeen bizipenak ezagutu nahi ditugu. Badago berreskuratzeko premia, aitortzarako premia, oharkabean pasa zaizkigulako emakume hauetariko asko eta asko, lan isilez, Azpeitia posible egin duten eta egiten dutenak.

Ibilbidean zehar emango duzuen pauso bakoitzean emakumeontzat garrantzitsuak izan diren eta diren gaiak landuko ditugu (lana, kulturegintza, militantzia politikoa, elkar laguntza eta babesa, etab.). Beraz, elkarrekin egingo dugu bidea gutako bakoitzetik abiatu eta taldera, norbanakotik kolektibora, atzera begira egindako bide honek, aurrera egiten lagun diezagun.

Azpeitiko Emakume Mahaiaren eta emakume talde baten ekimen zein lanari esker osatu den ibilbidea duzue hau. Emakumeak beste emakume batzuk egindako lana aitortzen.

Elkar babesten, elkarrekin ahalduntzen.

GELDIALDIAK


Hurrengoak dira, hurrenez hurren,
ibilbidearen geldialdiak:

1. Ikastolako andereñoak eta auzo-eskolak
2. Alpargaterak
3. Neskametza eta zerbitzariak
4. Baserritarrak
5. Dendariak
6. Telefonikako langileak
7. Antzerkia eta dantza. Kulturgintza
8. Lixiberak
9. Politikagintza



1. IKASTOLAKO ANDEREÑOAK ETA AUZO-ESKOLAK

*“Gañea in ber zien umiek preparau
bazpare. Guk han geneuzken [...] dotriñeko liburuxke txiki batzuk, otoitz
batzuek, eta zeak. Preparaute eote giñen
Guardia Zibilek etortze bazien”*



ELKARRIZKETATUAK: EMAKUME ANONIMOAK

LEKUA: Ikastola egon zen lehen eraikina
(Errebal bukaeran, orain iturria dagoen
tokian)

Ezin uka daiteke Azpeitiko emakume ugariren irakasle ibilbidearen hasiera ikastolen sorrerarekin batera iritsi zela. Azpeitian, 1965ean abiatu zuen bere bidea Ikastolak; Errebalaren bukaeran zegoen Jesuiten eraikinean hain zuzen ere.

Errepresio eta klandestinitate garai hartan guztia zuten faltan: dirua, irakasleak, espazioak, materialak... Hala, konbikzioz, borondatez eta lanerako grinaz gainditu zituzten zailtasun horiek guztiak.

Elizaren laguntza ere ezinbestekoa izan zen hasiera haietan, bereziki klaseak emateko espazioei dagokionez. Baina, esan gabe doa herritar ugari inplikatu zirela Ikastolaren sorreran, gurasoen ekimenaz harago, euskararen alde zeuden pertsona ugari babestu baitzuten Ikastola: *“Ikastolie de... jendien moimientue den. Leno esan diñat ba. Gurasuek etziñabenan eiñ, gurasuk Axkottixen adibidez. Laguntzailiek hasi hittunan ikastolie*

sortzen. Umeik etzaukenabenan. Eta haxek zer zila usten? Taldetxuek: sindikaton baten zebiltzela... soziala... holako jendie”

Irakasleak behar ziren Ikastoletan eta apenas zegoen irakasle ikasketarik egindakorik. Askok, praktika bidezko formakuntzak jaso zituzten Santa Teresan, pedagogikoki prestatu eta hezitzaile bezala aritzeko. Bertan egiten zuten bizitza eta hortik hainbat herritara joaten ziren, praktikak egitera eta beste herrietako metodologiak ikastera.

Jakitun ziren, klandestinitatean arituta, bereizten zituzten hainbat elementu mantendu eta indartu behar zituztela; besteak beste, euskaratik eta pedagogia aurrerakoi zein alternatiboetatik elikatzea eta hemengo ikastoletan txertatzea. Irakasle moduan etengabe ibili ziren beren burua janzten, berrikuntza metodologikoan aitzindari izatera iritsiz; Montessori eta Zipitriaren lan egiteko moduetan murgildu ziren. Baina, klandestinitate garaia izanik, inspektoreen bisita izaten zutenean, kristau ikasbiderako eskolak zirela esaten zieten ikuskatzaile haiei. Horregatik, otoitzak eta eliz-kantak irakatsi behar izaten zizkieten haurrei.

Arestian aipatu legez, material falta izugarria zegoen orduan, sostengu ekonomikorik ez izateak eraginda. Gurasoen apustua, irakasleen inplikazioa eta herritar laguntzaileen borondateari esker egin zuten aurrera ikastolek: euskararen alde zeuden herritarren bultzadari esker, alegia.

Emakume hauetako askok izugarrizko inplikazioa izan zuten ikastoletan. Izan ere, ikaragarrizko prekarietatean egiten zuten lan hasieran, baina, hala ere, egiten zutenarekin erabat sinestuta jardun zuten: *“bagenekigun gu aña lan etten ai zinak beste nunbaiten dirue irabazte zebela eta guk ez. Eta etzitzekun inportik hainbeste. Guk nahi genduleko izen da. Euskerieatik zan”*.

Lehen urte haietan Ikastolako irakasle guztiak emakumezkoak ziren eta denetatik egitea tokatzen zitzaien: haurren hezkuntza, eskolaren garbiketa eta txukunketa, dirua lortzeko ekintzak, etab. Ikastolen sorreraren apustu kolektiboaren baitan apustu pertsonala egin zuten andereñoek: *“Sortu ziñabenan gurasuek, langiliek eta gu giñen langiliek. Baiño guk bagenekigun ze lan ettea giñuzen. Ez genekigun noizarte iraungo zuen. Zeatiken etsayek zeuden nunahi”*

Emakumeek euskal hezkuntzaren alde bizitza, denbora, ahalegin eta inplikazio handia eskaini zuten. Ezbairik gabe hein handi batean haiei zor diegu egun Azpeitian dugun hezkuntza: *“Ikastolaik ez balitzeke eongo? Ez litzeke eongo euskeraik. Zu ta ni buenos días esaten eongo giñen”*

AUZO-ESKOLAK

“Baserritarrantzat soluziyo bat zan”



ELKARRIZKETATUA: MIREN ODRIOZOLA

Andereñoez eta gure herriko hezkuntzaz ari garela, ezin aipatu gabe utzi auzo-eskolak eta bertako irakasleak ere. Auzo-eskolek, garai hartako irisgarritasun falta eta bideen egoera txarra zela eta, baserrietako haurrek egunero eskolak jaso ahal izateko irtenbidea izan ziren. Auzo guztietan zeuden auzo-eskola haiek: Elosiya behean, Elosiya bertan, Barrenolan, Txillarramendin, Loiolan, Lasao aldean... Bertan, haurrak, 11-13 urte arte egoten ziren denak batera eta, ondoren, Urrestilla edo Azpeitiko eskoletara batzen ziren, moja eta apaizekin ikastera.

Miren Odriozola, 13 urterekin, berak 11 urte izan arte aritutako Loiarteko auzo-eskolan hasi zen irakasle lanetan, bertako andereñoa zen Mari Carmen Bereziartuak beste lan bat aurkitu zuelako eta haren ordezkorik ezin zutelako aurkitu.

Tartean, baserritar batek eskola kokatuta zegoen lurra erosi zituen eta, horren ondorioz, eskola falta zela eta, Mirenen Gerraundi baserriko ganbaran aritu ziren beste 7 urtez haurrak eskolara joaten: *“ganbaran ite zuen hotza zala ta, umiek sukaldea bialtze nitun berotzea”*.

Eskolak emateko tokia lortzeko zailtasunak bitarteko, material falta handia ere nabaria zen. Liburu guzti-guztiak, urriak izanda ere, gaztelania hutsean zeuden. Are gehiago, irakasleen artean baziren euskaraz ez zekitenak eta horrek talkak sortzen zituen. Esate baterako, Odriozolak Zamorako irakasle bat du gogoan, Elosiyako eskolan ezagututakoa, zeina, euskaraz jakin ez eta negarrez hasi zena ikasleak ulertzen ez zituelako.

Haatik, gurasoek inolako zalantza izpirik gabe euskara mantentzea nahi bazuten ere, eta horren aldeko apustu irmoa erakutsi arren, beraientzat garrantzitsua zen seme-alabek gaztelaniaz ikastea.

Oztopoak oztopo, auzo-eskolen gertutasuna hauen indarguneetako bat zen, besteak beste, auzotarrek elkarren berri zeukatenez gertutasun handia izaten zuten familiekin. Mirenek batxilergoa ikastea erabaki zuenean, auzoetako gurasoek arduratuta geratu ziren haurrak eskolarik gabe geldituko ote ziren. Baina azkenean, autobusa hartuta Azpeitira jaitsi eta bertako eskoletara joaten hasi ziren.



2. ALPARGATERAK

“Umik zaitu ta bitartin alpargatak josi”



ELKARRIZKETATUAK: ROXARITO IBAIETA GABILONDO

LEKUA: Errebalean

Abarketak egitea ogibide garrantzitsua izan zen XX. mendean hasierako eta erdialdeko emakume azpeitiarrentzat. Tailerretan makinetan egiten zen alpargataren zorua. Espartzuzko zoru haiek eta oinetako haien gainaldea egiteko oihalak ematen zizkieten abarketariei, eta haiek, elkarrekin josten zituzten. Josi aurretik, zoruaren tamaina berera ebaki behar izaten zuten ohiala, ondoren,



egur eta burdinezko “*hanka*” moduko batean alpagata eutsi eta josteari ekiteko.

Etxean hasten zuten haien jarduna alpagaterek eta, aspertu bezain pronto, etxe atarira edota kalera jaisten ziren, beste alpagata jostunekin berriketan aritzeko. Asko izaten ziren Errebalean eta pilotalekuan alpagatak egiten kalean elkarrekin topo egiten zuten emakumeak. Beraz, elkarren artean erlazionatu eta sozializaziorako ere aprobetxatzen zuten jarduna. Izan ere, karrikak hartuz beraien arteko harremanak sustatzeko eta sareak eraikitzeko aitzakia paregabea izaten zuten. Gainera, alaitasunez janzten zituzten kaleak: *“Juerga batzuk pasatze zitxibenan, eh. Ta bullak eta eskandaluke bai eh, errebala benetan bereziye izen hunan. Balkoi batetiken bestea ta... bereziye izen hunan, bai bai”*.



Emakumeak etxetik kanpo egin izan dituzten edozein lanetan bezala, lan hauek etxea eta etxekoan zaintzarekin uztartu behar izaten zituzten lan produktibo eta erreproduktiboen arteko ezinezko orekak eginez: “*Umik zaitu ta bitartin alpargatak josi*”, “*2-3 ordu sartu albarketak josten ze gero familye zeonan*”. Gainera, emakumeen lana familiarako “*estra*” bezala kontsideratzen zen, honek zekarren balio emate faltarekin: “*Ordun zeon (gizonen) jornalakin ez hunan aiatzen. Ordun, emakumina aportazyue zan*”.

Ansoaldeneko zapata dendarako josten hasi ziren lehen alpagaterak, 2-3 lagun ibiltzen ziren, “*dendan aurrien zapateye zun ta atzien alpargata tailerra*”. Beranduagokoa da Landeta auzoko “*Txulonekue*” tailerra, tailer honek emakume langile asko kontratatu zituen alpargatak josteko, eta etxeko eta kaleko jarduna tailerrera pasa zen. “*Arreginekue*” alpargata fabrika ere bazen pilotaleku inguruan. Beraz, beraien kabuz abarketak jostetik, asko eta asko lantegira joan ziren. Era berean, lana aurrera eramateko lekua aldatzeaz gainera, moduak ere eraldatu ziren. Hain zuzen ere, eskuz burutzen zen lana makinen bidez egitera aldatu zen.





3. NESKAMETZA ETA ZERBITZARIAK

*“Denbora guztiyen zerbitzen jardun naiz, etxe
batea eta bestea eta gero nik ber nun garayen
ezerrez”*



ELKARRIZKETATUAK:

BEGOÑA OTEIZA, NEREA ARANBURU
eta ASUN BEREZIARTUA

LEKUA: Hotel Artetxe zena

Zaintza lanak, etxeko lanak, zerbitzari lanak...
tradizionalki emakume lantzat hartu izan
diren eta, gehienetan, egin nahi ez diren lan
horiek dira. Lehen eta orain. Izena eta forma
aldatu badiegu ere, problematika berdina
izaten jarraitzen du. Izan ere, familia burgesak
etxekoandreen lan kargez libratzen ditu, balore
baxuko lanak egitetik libratuz eta harremanen
arteko lan-banaketak eragin ohi dituen
liskarretatik libratuz. Beraz, aitortzarik gabeko
zaintza lan hauek emakume txiroagoen esku
gelditzen ziren eta dira.

Neskametza eta zerbitzaritza aipatutako
logikari erantzuten dioten jardunak diren
arren, zeregin hauetan aritu diren emakumeen
bizipenak era askotakoak dira. Hau da,
lanbidearen baldintza gogorrak onartu arren,
jardun horrek eman dizkien bestelako aukera
batzuk modu positiboan bizi izan dituzte,
soldatapeko lana izatea, toki berriak ezagutzea,
lagunartea osatzea, etab.

Azpeititik neska gazte ugari joan ziren Donostiara 60ko hamarkadan bertako etxeetan haurrak zaindu eta zerbitzari lanetara. Begoña Oteizak 13 urte zituen Donostiara neskame joan zenean: *“Aurelio Orbegozok, leno billatze zixkon tokiyek neskamiei eta... harek zea einde jun nitzen ni harean”*.

Asun ere 14 urtetatik aritu zen neskame. Hiruzpalau familiatan jardun zuen neskame moduan: Agirrenekuan, Garmendiko etxe batean, eta baita Loiolan bizi ziren ahizpa katalan batzuen etxean ere. Azkenik Donostiako familia baten egon zen urte luzez.


Familia baten zaintza eta zerbitzatzeko lanen ardura hartzen zituzten: familiako seme-alabak eskolara eraman, etxera ekarri, Donostiako Portura lagundu seme-alabei arratsaldea pasatzeko, familiari bazkaria zerbitzatu...

Askotarikoak ziren emakume hauek familia hauetan egiten zituzten lanak. Gogoratzen dute nola batzuk, otorduak ere aparte egiten zituzten: *“guk otorduek aparte ite giñuzen, hantxe sukaldien; lelen zerbiu ayei komedorea eta gero geuk”*. Asunek aldiz, bi emakume izanik familiako kideak, beraiekin bazkaltzen zuen egunero.

Lanegunak astelehenetik igandera arte luzatzen ziren eta egun osoz aritzen ziren hainbat familia zerbitzatzen. Igande arratsaldetan soilik izaten zuten jai eta Donostia eta inguruak ezagutzeko aprobetxatzen zuten: Oialumera dantzara joan eta jendea ezagutzeko.

Asunek beste neskameekin kafe bat hartzeko nola elkartzen ziren ekarri du gogora: plan desberdinak egiten zituzten, gustuko zuten zinemako estreinaldi batera joatea (Cantinflasen filmak adibidez) edo kafe baten bueltan jokoan aritzea. Finean, elkarren berri izan eta elkar babesteko momentuak izatea.

Neskameez gain, asko ziren diru pixka bat lortzeko uda garaian 3-4 hilabetez Donostia eta Zarautzeko hoteletan lanean aritze ziren emakumeak. Epealdi horretan bertan bizi ohi ziren eta denetariko lanak egiten zituzten: sukaldean lagundu, garbiketa lanak egin...



Lan horiek soldatapeko lanbide direnetik, emakumeei autonomia ekonomiakorako balio izan diete: *“Jende asko jute zan garai hayetan baserriyetatik, badakizu... baserriyetan lana ein inber, baiño geo soldataik eztao. Ta txanpona esku artien iziteatik”*.

Aldiz, lan horiek feminizatuta zeudelako, hain justu, prekariedade egoeran aurkitzen ziren, eta dira, gaur egun ere. Hori dela eta, gehienak, ezkonduetakoan lana utzi eta haien etxeetako lanez arduratzeari ekiten zioten. Berrir, lan mota berdina eginez.

Asunek familia berean eman zituen 39 urte. Ama itsua zen etxe batean aritu zen neskame eta haren zaintza osoaz arduratu zen urte guzti haietan. Emakume itsu harekin bizi zen alabaren zaintzaz ere arduratzen zen Asun.

“Neuk oso sueldo bajue neuken. Eta amak esate zien: ez tin merezi hoyek utzitzie. Danai laguntzen ai den bea eta ez tin merezi utzitzie geyo irabaztetiken”. Asunek ordea, soldata txikiarekin bizitzen ikasi zuen. Ama-alabak hil zirenean, gainerako familia kideek, etxea herentzian utzi zioten Asuni urte luzez egindako lanaren eskertza modura.

Esanak esanda, zaintza lanak erdigunean
jartzen jarraitzea ezinbestekoa da.
Feminizatutako lanei balioa ematea eta urte
luzez, gure amek, amonek, birramonek...
burututako lan horiengatik eskerrak ematea.
Emakume horiek guztiek egindako zaintza lan
horiei esker daukagu gaur egun ere ongizatea.





4. EMAKUME BASERRITARAK

*“Emakumiek emate zun etxekue eta
kanpokue”*



ELKARRIZKETATUAK:

MARIA OLATZ BEREZIARTUA

MIREN ZINKUNEGI

eta MIREN ODRIOZOLA

LEKUA: Berdura plaza atzean

Baserri munduak irauteko, ezinbestekoa izan da emakumeen jarduna eta lana. Goizean esnatu, gosaria prestatu, laborantza egin, etxeko lanez arduratu, otorduak prestatu, lixiba egitera errekarra jaitsi, behiak zaindu, haurrak hezi eta azokara jaitsi. Hauek eta beste hainbat lan egiten zituzten egunero-egunero Azpeitiko emakume baserritarrek. Haien hitzetan entzun daitekeen moduan, etxekoa eta kanpokoa biak ziren emakumeen ardura: *“Emakumiek emate zun etxekue eta kanpokue; gizonak, normalien, kanpokue bakarrik”*. Ekoizpena eta zaintza biak ematen baitira baserrietan.

Azokara jaistea emakume baserritarren beste lanetako bat izan ohi zen: *“Ama ibiltze zan azokan, bere arrautzakin ta bere generuekin, zaukenakin: o babarruna, o arrautzak, o zerbait tipo hortakue”*.

Esnea banatzea eta azokara joatea eguneroko zereginak izaten ziren emakume baserritar askorentzat. Esne banaketarako baserri bakoitzak kaleko lauzpabost etxe izaten zituen, egunero-egunero marmitarekin joaten ziren emakumeak etxez etxe eta etxekoandreek eskura jarritako ontzietan partitzen zuten esnea.

Azoka ere egunero izaten zen Azpeitian. Astoa karroarekin berdura plazaren atzean uzten zuten, Astotegia bezala ezaguna den lekuan. Sasoian sasoikoa saltzen zen eta emakume bakoitzak bere lekua izaten zuen, erosleak etorri eta: *“zenbat? Hainbeste! Ba ez, hainbeste! Eta hola izaten zen!”*. Hau da, tratua edo *regateoa* zegoen. Azoka egunero egiten bazen ere, asteartetan izaten zen asteko azoka handia, eta ohiko saltzaileez gain kanpotik etorritakoak ere izaten ziren, bereziki egunerokoan hain eskura ez zeuden produktuak saltzera: laranjak, mahatsa, etab.

Astearteko azokara *“Errekarterak”* ere etortzen ziren. Hiri eta herri handietatik etortzen ziren oilaskoa eroatera, ondoren beraiek hotel eta jatetxeei saltzeko. Aurreko mantal handiak jantzita gogoratzen ditu Mirenek, eta nola baserritarren gerturatu, oilaskoak hartu eta lumen artetik azala ikusteko oilaskoei putz egiten zieten. Kolore oso ona ez zutela

iruditzen bazitzaien, regateoan hasten zitzaizkien, produktuen prezioak moldaraziz. Ordaintzeko, alkandora barruan eskua sartu eta titi artetik ateratzen zuten diru-zorrotik ordaintzen zieten. Baserritarrak: *“hauek ditun lotsagabe zarrak”* esanez gelditzen ziren.

Feria eguna aldiz, hileko 3. asteazkenean izan ohi zen, animalien inguruko tratuak izaten ziren nagusi eta tratuan gizonak aritzen ziren. Azokakoa ere beraz generoaren arabera banatua zegoen, eguneroko berdura salmenta txikia emakumeen esku eta ganaduarekin lotutako noizbehinkakoa salerosketa handia gizonen ardurapean.

Kaleko beste emakumeekin hartu-eman gutxi izaten bazuten ere emakume baserritarrek, azoka egunetan elkarrekin topo egiteko aukera izaten zuten. Horrela, salerosketa uneak informazio eta elkarren berri izateko espazio bilakatzen ziren.

Horrez gain, azokako irabaziekin herriko dendetara joateko aprobetxatzen zuten egun hori, garbiketarako xaboiak, olioak eta abarrak erosteko. Ohikoa izaten zuten Enparan kaleko kooperatibarako joan-etorria. “Denetarik” saltzen zuten han eta baserritar asko bertako bazkide ziren. Gerora Eroski izatera pasa zen kooperatiba.

Tarteka kaleko emakumeak ere joan ohi ziren baserrietara, besteak beste, arto-zuritsera eta babarrunak biltzera. Une hauek kaleko kontuen berri izateko eta abesteko une paregabeak izaten ziren: *“Ta gu gustoa, emakumiek eta hitzeiten da ume zarrak saltoka zorro artien, gustoa. Eta gurasuekin e, ordun, sukalde haundiye gure etxien eta eman arto mordoxka bat eta gabin danak jarri hantxe bueltan, sukaldien, eta arta zuritzen. Eta errosayue errezaure bai”*. Haurrei ipuinak eta gertakizunak kontatzeko ere aprobetxatzen zen tarte hau. Familiako eta inguruko kontuak izaten ziren mintzagai, transmisio lan handia egin zen beraz sukalde haietan.



5. DENDARIAK



*“Dendan, edozein enpresen moduan lan egiten gen-
ñan”*

ELKARRIZKETATUAK: ROXARItO IBAIETA

LEKUA: Erdikale hasieran

Azpeitia izaera zein nortasun askotariko dendaz josita zegoen, ezker-eskuin, kaleetan barrena topatzen ziren dendak: mertzeriak, janari-dendak, gozotegiak, arropa-dendak, upeltegiak, altzari-dendak, frutategiak, arma-dendak, drogeriak, abarketa-dendak, zein lurrindegiak. Zerrenda amaiezina zen.

Azpeitia bazen inguruko herrientzat ere erosketakegiteko gunea eta horrek merkataritza eskaintza zabala izatea ekarri zuen. Jende ugari gerturatzen zen asteartetako azokara eta bide batez, bertako dendetara errekaduak egitera: Sukaldeko tresneria eta ontziteria behar zuena Plaza Txikian aurkitzen zen “*Kanpaxanekun*”

dendatik pasa zitekeen; arropak neurrira erosteko berriz, “Arratibeleneko” edo “Asauntze” jostundegietara joan zitekeen; garai hartan, galtzetak zulatuz gero, ez ziren orain bezala bota eta berriak erosten, “Xaberrinekuenetik” pasa eta bertan puntuak hartze zituzten, berriro galtzetak erabilgarri izateko; “Gibertenekoen” burdindegia; edo “Kristinitaren” estanko txikia ere aurki zitezkeen kalean barrena; “Juanita fruterian” gelditu edo bestela, kaletik gora eta behera karro batekin ibiltzen zen haren anaiari erosteko aukera izaten zuten; arraina erosteko ere ezinbesteko parada zegoen Santiyo kalearen amaieran, ia-ia plazara iristear zegoen arkupeetan. Hantxe, azulejudun arkupe ikusgarrian topa zitezkeen 3-4 emakume, mostradoreetan arrain freskoa saltzen; “Lizasoneko” harategia; “Aldagoitineko” mertzeria; “Uitin” bizikletak konpondu eta alokatu zitezkeen; “Lasanekuen” barruko arropak erosi; “Orbegozoneko” drogeria; “Tuertoneko” eta “Carolinanekuen” janari dendak eta abar.

Kaleei nortasuna eta bizia ematen zieten bertako dendeak. Ezin pasa pilotalekuko izkinatik arkupeetatik zetorren arrain freskoa usaindu gabe. Nekeza “*Tuertoneko*” dendatik ogia eta “*Bonbak*” erosi gabe ateratzea “*Tuertoneko bombak, la bomba hitunan*”. Egun euritsuetan kontuz ibili behar izaten zen Carolinanetik arroza edo azukrea pisura edo granelean erosiz gero, paperezko zorro marroiak ez bustitzeko. Errekadu guztiak eginda, ogia, egunkari paperean bilduta joaten ziren erosleak etxera.

Beste bizitasun bat antzematen zen kaleetan. Tratu pertsonalizatuak, konfiantza harremanak eraikitzeko aukera eskaintzen zuen dendarien eta erosleen artean. Dendak “*magikuek hitunan ordun*” eta ezinbestean, sozializaziorako, tratuak egin eta elkarrekin topo egiteko guneak ziren. Gainera, asko baloratzen zen lanbidea zen, baldintza onekin eta estima handikoa; ez supermerkatu handiek, internet bidezko erosketek eta establezimendu handiek gain hartu duten garaiotan, bezala: “*Oin dendayek txerrieki bat gea; baiño ordun denda txiki bat zakena sandios zan*”. Dendari txikiek zuten indarra, nostalgiaz oroitzen du Roxaritok.

Orduan, astean behin kobratzen zen eta horretarako, liburuxketan apuntatzen zituzten eroslearen eguneroko gastuak, larunbatean dena ordaintzeko: *“batematek tranpa eitie intentatze ziñenan, baiño danak apuntau ta bi astea esate zikonan”*. Konfiantza osoa zegoen. Guztia eroslearen neurrira eta beharretara egokituta izaten zen, esaterako, Roxaritok eta, jertseak neurria egiten zizkieten hala behar zutenei.

Haatik, guztien artean bat etortzen zen ezaugarria, eskuarki, arduradunak nagusiki emakumeak zirela izaten zen. Emakumeek lan munduko ateak itxita zeuzkaten bitartean dendetako ateak beti izan dituzte irekita. Izan familia guztiak parte-hartzen zuen negozio familiarrak zirelako, izan etxe ingurutik gehiegi urruntzen ez zen lanbidea zelako edota izan etxeko eta etxekoen zaintza lanekin uztargarria zelako, dendak beti izan dira gizartearen begietara emakumeentzako lanerako esparrua.





Hala ere, eta ziurrenik emakumeak nagusi zirelako, beraien lanpostuaren balorea azpimarratzea ere tokatzen zitzaiera kontatzen du Roxarito Ibaietak : *“Denbora-pasa hutsa”* zela entzun behar izaten zuten, denda kudeatzeak inolako lanik emango ez balu bezala. *“Guk eozen enpresak eitezun bezela modelo batzuk atea eta tenporadan presentatze gitxiñan. Adibidez, negureko bazan udaberriyen presentatze gitxiñan ta pedidue hartze giñenan. Enpresak bezala!”* Produktuak ezagutu, eskariak planifikatu, diru-kontuak eraman, erosleekin harremanak zaindu, guzti hori egiten zuen dendariak, lan isilean eta aitortzarik gabe. Dendari esker, bizimodua aurrera ateratzeko moduan izan ziren emakumeak, horrek zekarren lasaitasunarekin.

Halaber, dendariak emakumeak izateaz gain, etxeko arduradun gisa, erosleak ere emakumezkoak izan ohi ziren. Hala, dendetan emakumeen arteko harremanak eraikitzen ziren, saltzaileen hitzetan, familien parekoak izatera iristen zirenak. Sarri harreman horretatik benetako elkar laguntza sareak eraikiz: behar zuenari lagundu (trukea, zorretan uztea...), entzun...

Taberna edo bestelako aisialdi guneetan emakumeen presentzia gaizki ikusia zegoen garaian, dendak emakumeentzat sozializazio espazio garrantzitsuak izaten ziren, elkarrekin egoteko eta egunerokoa elkarrekin konpartitzeko aukera ematen zuten espazioak. Azpeitiko dendetako mostradore inguruetan Azpeitiko emakume askoren tristura eta buruko minak arindu eta pozak partekatu eta ospatu dira.

Erdikaletik, errebaleraino, bizi ugari eman izan die dendak urte luzez Azpeitiari eta bertako kaleetan eta dendetan izango dira milaka istorio.



6. TELEFONIKAKO LANGILEAK

“Hainbeste emakume lanien hastie, fija hai zer dan hori, ze aberastasun dan”

“Lortu ein genizkiñenan, gauze txikiyek, baiño pauso batzuek”

**ELKARRIZKETATUAK: KONTXITA
MARTIJA, KONTXITA ODRIOZOLA,
BEGO ELIAS eta MILA AMENABAR**

LEKUA: Telefonikako eraikinean

1965ean ireki zen, Gipuzkoako lehenengo telefonia zentroa Azpeitian. Ehunka emakume, bata urdin eta solapa zuridun trajez egunero kalean gora eta behera ibiltzen ziren, laneko txanda aldaketen artean eta kafe orduetan. Irudi berezia zen ezbairik gabe, emakume piloa, erdi kaletik telefonikako eraikineraino behera zihoazela: “aquí vienen las telefonistas!” diar egiten zietela gogoratzen du Kontxitak.

Lanbide hau, emakumeak soldatapeko lan mundura txertatzeko lehen pausoa izateaz gain, hainbat hamarkadaz emakume askorentzat independentzia eta autonomiarako ezinbesteko tresna izan zen.

Lanera iritsi bezain pronto, uniformeak jantzi behar izaten zuten. Ondo prestatu eta bakoitza, bere lanpostura joateko: *“in ber izite genun gañea gure arropa kendu ta bata urdin bat emateziuben, ta mikroa jartze gendun; ileran jartze giñan, soldauak bezela ta, ta, ta sartze giñan. Eta geo hori, Milak esan duna, beti goyan zeon Cadizko hori “que era mas mala que la piña” eta bueno bronkak itteko desiatzen”*. Emakumeentzat, oro har, oso zaila izaten zen goi-karguetara iristea. Bereziki telefonista lanean aritzen ziren.

Orduak eman zituzten Azpeitiko ehunka emakumek, panel baten aurrean, “klabija” bakoitza zegokion tokian jartzen. Deia sartu, nora deitu nahi zuten adierazi eta hor hasten ziren, konexioak egiten. Lehenik Madrilera, handik Badajozera eta gero Castuera-ra. Horrelako dei luze bat egiteko, orduak egon behar izaten ziren zain. Horregatik, konexioak ez galtzeko, arropak zintzilikatzeko pintza batekin markatzen zuten, ez deskonektatzeko, bestela berriro hasieratik hasi beharko zuten eta: *“Zuk, Extremadura hotsein ber bazenuen, lelengotik Madridea ite zenduen, madridekuek emate zizun Caceres ta geo handik Plencia emate zizun ta geo iual beste herri txiki batea. Abixue lagatze ziyozun 19:00retan lokutoyoa juteko, hotsein in ber ziyobela ta, gero hori aitze zan, desastre bat”*.

Zentralitan emakume talde handia batzen zen, bero egiten zuen bertan. Horrela, lanean ari zirela, asko batak kendu eta barruko arropetan jartzen ziren. Horrela iritsi zen Azpeitira barruko arropen “*konjuntoen*” moda. Herriko mertzeria eta arropa dendetan izugarri igo zen “*konjunto*” hauen salmenta.

Gogoratzen dutenez, merkataritzan oro har, aldaketa handia ekarri zuten telefonistek. Telefonistekin batera, herriko beste enpresa batzuetan ere hasi ziren lanean emakumezkoak.



Emakumeek diru-sarrerak zituztela antzematen zen, bai arropa denda eta mertzerietan, eta baita bestelako kontsumo ohituretan ere. Lehenengo oporraldiak egiten hasi ziren familiak, automobilak erosten eta abar. Bizimodua aldatzen hasi zen.

Hobekuntza horiek ez ziren ordea musu-truk iritsi. Langileen baldintzak hobetzeko asko borrokatu zuten emakume haiek. *“lortu ein genizkiñenan, gauze txikiyek, baiño pauso batzuek”*. Lorpen kolektibo moduan gogoratzen dituzte, besteak beste; lan orduetan alfabetatzeko ikas-taroak jasotzea, ekonomatorako sarbidea edo oporrak aukeratzerakoan gazteak eta ezkon-gabeak diskriminatzen zituen barne legea deuseztatzea.

Euskaraz aritu ahal izateko ere urte luzez jardun zuten borrokan, *“Geo azken aldea kontsegittun genun e! Nik azken aldea, hemen, itxi aurretik, guk euskeraz lasai itte gendun”* Beste enpresa askotan bezala, garaiko kontestua kontutan izanda, geldialdi ugari egin zituzten telefonistek ere, arrazoi politikoak tarteko.

Emakumeak soldatapeko lan munduan txertatzeak, kontziliaziorako lehen zailtasunak bistaratu zituen. Gainera asko eta asko, garai antzekoan harrapatu zituen aukera horrek, ama izatear edo izan berri, gehienak: *“Badakin ze pasatze zan, ume zaharrak gora ta ume zaharrak behera... honeaño einde ya. Gaur eman zonat hango pure, gaur etzekiñet ze in diyotan, katarrue zaken, emayon hau medikuna emanez, ... apuntatze ziñabenan bestiek esandakue ta”*.

Egoerari aurre egiteko, hasiera batean, familia askotan zaintzaileak kontratatu ziren. Gerora, 1974an, ireki zen Azpeitiko lehen haurtzaindegia, Jesus-Maria konbentuko geletan. Emakumeen konstantzia eta hasierako doako lanari esker aurrera atera zuten hau ere. Horrela, telefonikako emakume askoren seme-alabak, haurtzaindegira joaten hasi ziren.

Azpeitiko emakumeez gain, beste herri batzuetakoak ere aritu ziren Telefonikan. Donostiatik, esaterako, emakume asko etorri ziren. Honek, aldaketa handia eragin zuen bertako emakumeen pentsaeran ere: *“Gu ordun, gaztetan, ez gitunan taberna sarture iten, hayek etorri ta kopie erate ziñabenan eta zigarrue erre”*. Herrian, emakume izateko modu berriak eta desberdinak agertu ziren.



Lan orduetan, ostiralero, ONCEko Ines agertzen zen, *“Telefonika, millones!”* oihukatuz; baserritarra oilaskoekin, ardi esnearekin eta gaztarekin ere gerturatzen zen, bertara. *“Bertan, supermerkaue montatze giñenan”*; baita okina ere: *“bozinie jotze ziñan ta danak ileran jartze hitunan. Batzuk bazarenan kroasan haundiyena arrapatzea laisterka muturrez aurreaka jute zienak”*. Croissanta hartu eta Riojanonea edo Lidiane a joaten ziren kafea hartu eta gosaltzera.

Goiko kontroleko buruek, hauek egiten zutena zaintzen aritzen baziren ere, beraien arteko konplizitatea eta borrokarako grina, ez zen hola eta hola apaldu. Sozializatzeko, etxetik irteteko eta errealizatuta sentitzeko espazioa izan zen, harremana eta emakumeen arteko sareak eraikitzea erraztu zuena.

1965ean ireki zen, Gipuzkoako lehenengo telefonia zentroa Azpeitian. Ehunka emakume, bata urdin eta solapa zuridun trajez egunero



7. ANTZERKIA ETA DANTZA KULTURGINTZA

“Herriko gazteentzat sozializazio espazio garrantzitsua izan ziren, baita emakumeentzat tzea”.



ELKARRIZKETATUA: IXIAR OIARZABAL
eta MIREN ODRIOSOLA

LEKUA: Dinamoa Sormen gunean



Geldialdi honetan kulturgintzaren alorrean XX. mendeko bigarren erdian Euskal Dantzak eta Antzerkigintza diziplinetan Azpeitian egondako loraldia ekarri nahiko genituzke gogora: *“Azpeiti oso herri tradizionala zan arren, kulturgintzan oso punterue zan”*.

Euskal dantzei dagokienean, Azpeitian Ohargi dantza taldea aipatu behar da, 1960 urte inguruan sortu zen eta ibilbide oparoa izan zuena. Antzerkigintzan, berriz, Antxieta antzerki taldea, sona eta maila handiko taldea izan zen. Talde hauez gain, Herri Gaztedi taldeak ere bere baitan euskal dantza eta antzerki taldeak osatu zituen 60ko hamarkadaren hasieran. Beraz, sorkuntza handiko garaiak izan ziren.

EUSKAL DANTZAK

Esan bezala, euskal dantzei zegokionean Ohargi dantza taldea zen talde garrantzitsuen.

Hala ere, Herri Gaztedikoak ere beraien ibilbidea egin zuten, sarri Ohargikoen laguntza eta babesarekin. Mirenek ongi gogoratzen du, nola Ohargi dantza taldearen arrokekin ibiltzen ziren, baliabide gutxi zituztelako. Herri Gaztedikoen irakasleak ere beraiek ziren.

Herri Gaztedikoak astean zehar, iluntzetan elkartzen ziren Berdura plazan entseguak egiteko: ondo estiratu, beroketak egin eta gero dantzari ekiten zieten.

Jaietan, inguruko herri txikietara joaten ziren dantza egitera: Errezilera, Beizamara edota Arroara. Goizetik joaten ziren eguna pasatzera eta goiz partean dantza erakustaldia egiten zuten, bertan bazkaldu eta arratsaldean antzerkia egiten zuten.

Egun hauek aprobetxatzen zituzten, beste herrietako gazteekin loturak egiteko. Herri Gaztedik zuen kutsu militantea ahaztu gabe. Horretarako, askotan, apaiz gazte eta euskaltzaleekin kontaktatzen zuten aurrena eta hau arduratzen zen bilera adostez bertako gazteekin. Bilera horretan, bertako herritar, baserritar eta gazteekin biltzen ziren.

Euskal Dantza taldeak errepresio frankistaren garaian euskara eta euskal kultura sustatzeko ezinbestekoak izan ziren, gazteen artean ordura arte guztiz zapalduta egon zen euskara eta euskal kultura aldarrikatu eta zabaltzeko bide bat.

ANTZERKIGINTZA

Antzerkigintzan Antxieta taldea aipatu behar da. Soreasu zineman entseatzen zuten eta hainbat antzerki obra egin zituzten: *“Garai hartako antzelanak antzezte genitun, gai kostunbristak, umorie asko ibiltze zan, eliza kontuke bai (adibidez: Ramuntxo, Pasioa Aste Santuetan...)”*. Euskara zabaltzeko helburuarekin antzezlanak Euskaraz ere egiten ziren, adibidez Santo Tomas egunean.

Emakumeek emakumeen paperak antzezten zituzten. Baziren paper garrantzitsuak, esaterako Maria Magdalena edota Ama Birginarena Aste Santuetan, baina beste batzuetan bigarren mailako paperak izaten ziren: leprosarena, Pilatosen andrearena... Gainera, frankismo garaiko errepresio giroa eta

elizaren indarraren ondorioz hainbat debeku ere izaten zituzten, hala nola, emakumeek erabili beharreko arropa: *“apaizek, jantzi ber nun soinekue ikusi ta esan zitenan: horrekin ez!”*.

Antzezlanetan emakumeak egoera deserosoak ere bizi behar izan zituzten: *“neska gaztie nitunala, gizon zaharroko bat besarkau ber niñenan ta iguine emate zitenala gogoratzeñat”*.

Hala ere, antzerkia emakume askorentzat ahaldunderako ere oso garrantzitsua izan zen: *“Antzerkiyek ahaldundzie eman ziten, askatzie”*. Gainera emakumeei ez zegozkien lekuak hartzeko aukera ere eman zien: espazio publikoa, lagun sarea zabaltzea, herritik atera, gauetan luzatzeko aukera...

Ahalduntze pertsonalaz harago gizartean eragiteko tresna ere izan zen: *“Antzerkiye prequiziyuei aurre iteko baliyogarriyen izen zan, araueki kontra iteko modu bat”*.

Aipatutakoez gainera, 1994an Lakrikun antzerki-taldea ere eratu zen. Hau, talde amateurra zen; noiz edo noiz antzerki obra berriak gertatu eta jendeari eskaintzeko asmoz eratu zen taldea. Hasiera batean mistoa zen arren, oster, emakumez eraturiko taldean bilakatu zen.

Ezin aipatu gabe utzi, Azpeitiko Jabetze Eskolen baitan, emakumeen ahalduntzea garatzeko asmoz sortu zen Emakumeen antzerki taldea. Ikasturte askotan, hainbat gai jorratuz osatu zituzten antzerki mordoa. Adin desberdinetako emakumez osatutako taldea sortu zuten, zeinak interpretazioaren eskutik, espazio publikoa hartu baitzuten, emakumeen presentzia urte luzez bermatuz.

ELKARREKIN SORTU ETA ELKARREKIN AHALDUNDU

Talde hauen helburu nagusiak dantza eta antzerkiaren bitartez Euskara zabaltzea eta taldea egitea ziren: *“Harreman estuk sortu zien... oso ondo pasatze genun”*.

Kultur talde hauek herriko gazteentzat sozializazio espazio garrantzitsua izan ziren, baita emakumeentzat ere. Kulturgintzaren bueltan gazteen artean sozializatu eta elkarrekin sortzeko aukera paregabea izan baitzen: *“Geyen gustatze zitzaitena, geneuken girue zan”*.

Gainera, Mirenek gogoratzen du nola Herri Gaztedin baserri munduko gazte askok parte hartu zuen, eta bertako parte izatea, eta bertako dantza eta antzerki taldeetan parte hartzeak baserri giroko gazte hauei lotsak kendu, ahaldundu eta politikoki esnatze bat ekarri zuen: *“Garai hayetan baserriye ta kalien artein desberdintasun haundiyek zeuden”*.







8. LIXIBERAK



ITURRIA:

Hezitzaileen gida! Izan zirelako gara.

Nora goaz?

LEKUA: Garbitokia

XIX. Mendera arte ez ziren agertu hirietako eta hiribilduetako garbitegiak. Ordura arte emakumeek erreka ertzetan, iturrietan eta ur asketan garbitzen zituzten arropak, baina, eragozpenak izaten zituzten, edateko erabiltzen zen ur garbia zikintzen baitzen.

Aire zabalean beti, klimaren gora beherak jasan behar zituzten, askotan hankak uretan sartuta aritzen ziren edo harri baten gainean belauniko; emakumeek egin behar zituzten lanen artean gogorrenetakoa eta okerren ordaintzen zena zen. Lixibagileek elkarrekin garbitu ohi zuten arropa, kantuan aritzen ziren bitartean edo auzoko azken berriez hitz egiten zuten bitartean.

Komunikabiderik gabeko gizarte hartan berriak ahoz aho zabaltzen ziren, inprimategia asmatu ondoren albiste orri batzuk zabaltzen ziren arren, horien hedapena oso mugatua zen jende gehiena alfabetatu gabea baitzen.

Eguneroko arropa txikiak maiz garbitzen zituzten, baina, oihal zurien lhiba handiak urtean lau aldiz egiten zituzten eta lan izugarria zen: oihalak landare errautsetan egosten zituzten eta uretan pasatu ondoren belar gainean zabaltzen zituzten, eguzkitan lehortzeko.

Horregatik, oihal zuri asko izaten zituzten ahal zutenek. Hirietan bizi ziren familia aberatsek lilibagile bati ordaintzen zioten: arropak etxean jasotzen zituen eta erreka eramaten zituen (beranduago garbitegira) eta garbi, batzuetan lisatuta ere, itzultzen zituen. Beste etxe batzuetan, neskameek egiten zituzten lan horiek eta neskamerik ez zuten etxeetan etxeko andreak eta alabek.

XIX. mendea baino lehenagoko agirietan ez da ia lan honen aipamenik agertzen Azpeitian. Bada M^a Bautista Oyarzabalen erreferentzia bat, 1773koa. Bizimodu lizuna egiteaz akusatu zuten: bizimodua nondik ataratzen zuen azaltzeko eskatu ziotenenean, arropa garbitzen zuela eta ura etxeetara eramaten zuela adierazi zuten. Zentimo batzuen truke iturrietako ura etxeetara eramaten zuten neskatoak edo emakumeak zeuden orduan.

Garbitegien eraikuntza hobekuntza izugarria izan zen emakumeentzat, higienearen arloko aurrerapenak eta jantzien bitartez germenak kutsa zitezkeela jakiteak bultzatu zuten garbitegien eraikuntza. Oso garrantzitsua zen errekek eta ibaiak garbi egotea, giza kontsumorako erabiltzen baitzen ur hori. Ondorioz, arropa bereziki horretarako sortutako lekuetan garbitzen hasi ziren.



Gainera, garbitegiak eraikitzean, arropa maizago garbitzen hasi ziren. Emakumeak gizarteratzeko leku pribilegiatuak izan ziren, nahiz eta aurreko mendeetan iturriek ere funtzio bera bete, baita merkatuek ere; baina garbitegien ezaugarriei esker emakumeen arteko harreman hori areagotu egin zen, bakarrik eta babestuta sentitzen zirenez konfiantza osoz hitz egin baitzezaketen garbitegian. Hitz egiteaz gain abestu ere egiten zuten, eta liskarren bat sortzen zenean eztabaidak ere izaten zituzten. Gizonen kasuan tabernak betetzen zuen lekua emakumeen kasuan garbitegiak betetzen zuela esan daiteke.

Frantzian 1851. urtetik aurrera bultzatu zen garbitokien eraikuntza. Azpeitian garbitegi bikaina eraiki zen, ikuspegi arkitektonikotik bereizia eta lixibagileen lana erosoago egin zuena. Jose Javier Olazabal Altuna indiano herritarrek oparitu zion eraikin hori bere jaioterriari.



Badirudi Jose Javier lixibagile baten semea zela eta Amerikara joan eta aberastuta itzuli zenean, herriko lixibagileentzat eta orokorrean arropak garbitu behar zituzten emakume guztientzat garbitoki bat eraikitzeke agindu zuela.

1833. urtean Jose Javier Olazabal Altunak, Mariano Jose Lascurain arkitektoak egindako planoak aurkeztu zituen. Lascurain Gipuzkoako arkitekto onenetakoa izan zen; Donostiako udal Arkitekto izendatu zuten 1833an. Urte horretan bertan egin zuen garbitegiko proiektua eta 1842an eraiki zuen.

1843an Olazabal familiak udalerrian esku utzi zuen garbitegia, Jose Javier jauna hil ondoren. Hiribilduak errespetatu beharreko zenbait baldintza ezarri zituen familiak: garbitegia herriko bizilagunena izango zen, eta ez zen inoiz etxerik altxatuko garbitegia zegoen lekuan, ez beste ezertarako erabiliko eta ez eta besterenduko ere. Udala arduratuko zen garbitegiaren mantentze lanez.

XIX. Mendean mezenasek euren aberastasunak herrikideen probetxurako eraikuntzak altxatzera zuzendu zituzten, euren izenak betikotzeko asmoz.

1910ean garbitegia berritu zuten, higie-ne arrazoiengatik: ordura arte arropa zikin guztia aska bakar batean xaboitzen zen, baina arropa zikin guztia nahastea osasunarentzat kaltegarria izan zitekeela pentsatu zuten eta horregatik banakako askak jarri zituzten. Ordutik aurrera lixibagileek ez zuten garbitzeko ura besteenarekin nahasten.

Urrestillan bazen garbitegi zahar bat, oso egoera txarrean. Horregatik, 1882an berria egitea erabaki zen, lehendik zegoena konpontzeak ez baitzuen merezi. Ignacio Sebastian Echeverriak amaitu zuen lana 1886ko urtarrilean. 1926. urtean sei garbitokiko garbitegia eraiki zuten Nuarben.

Gipuzkoako probintziak, 1917ko Probintziako Higie-ne Arautegian, iturburuetan eta ibaietan garbitzea debekatu zuen eta 7. artikuluan garbitegiak arautu zituen, higie-ne kontrolatzeko.



9. POLITIKAGINTZA

“Ahalduntzea eman zigun militantziak”



ELKARRIZKETATUAK: INAXITA
BEREZIARTUA, IXIAR OIARZABAL,
MIREN ODRIUZOLA eta beste emakume
anonimo batzuk.

LEKUA: Emakumeen Txokoa

Politikagintza ez da inoiz eremu erraza izan emakumeentzat eta zer esanik ez, errepresio garaiei dagokionean. Hala ere, Azpeitian borroka ugari egin dute emakumeek eta haiei eskerrak, historian aldaketa ugari eman dira.

Emakumeak, politikagintzan ere, isilpeko lanaz arduratzen ziren. Izan ere, talde politiko mistoetan, gizonak izan ohi zuten lidergoa. Hori ordea ez zen oztopo izan Azpeitiko emakumeek beraien buruari hainbat galdera egiten jarraitzeko: zer ari da gertatzen jendartean? Hobetu daiteke egoera hau? Nola? Guk, zer egin genezake?

Frankismoko errepresio garaiak, zailak izanagatik ere, garai emankorrak izan ziren politikagintzarentzat. Injustizien aurka joateko beharra ezinbestekoa zen eta berebiziko garrantzia hartu zuen estrategia kolektiboak eraikitzeak. Esparru ahalduntzailea izan zen emakumeentzat militantzia. Besteak beste, jendarteko, parte aktibo bilakatu zirelako eta zapalkuntzen aurka eta eskubide zibil eta sozialen alde gogor borroka egin zutelako. Frankismo garaiko errepresioaren kontrako borrokan, hainbat ekintza gogoangarri izan ziren Azpeitin.

Debeku garaietan, ekintza ugari elizaren babespean burutzen zituzten, eta horietako bat izan zen, Parrokiko itxialdiarena. 50 bat emakume eta gizon, erretorearen trabei aurre eginda, Azpeitiko parrokiari gau batez itxialdia gauzatu zuten. Bertan, Uneko egoera errepresiboaren, euskararen egoeraren, presoengururuan, langileen egoeraz, emakumeei buruzko... solasaldiak gauzatu zituzten.

Goizeko ordu txikietan, bi gizon frankista sartu omen ziren parrokiara, irteteko mehatxu eginez, *“baino han jarraitu genun, tinko”*. Izan ere, hauen asmoa goizeko lehen mezako jendearen artean nahastuta irtetea zen. Egoera okertu zitzaizen ordea. Goizean goiz, erretorea agertu zen, azkar irteteko, Guardia Zibila kanpoan zela eta irteten baziren zigorrik ez zutela izango, baina bestela denak atxilotuko zituztela esanez.

Denen artean, azkenean, sakristegitik irtetea adostu zuten eta halaxe, zigorrik gabe, amaitu zuten itxialdia. Antzeko beste ekintzatan, ez zuten horrelako zorterik izango. Buen Pastorreko itxialdia gogoan du Odriozolak. Hango itxialdian, gogor jokatu zuen poliziak eta denak identifikatu zituzten.



Aldiz, Saninaziotako ekintza bat ekarri du gogora. Saninaziotako mezara, Burgosko banda militarra etortzen zen. Hauek, meza erdi-erdian, Espainiako himno nazionala jotzen zuten. Talde batek, hura mezetara joaten ziren guztientzat ez zela gustukoa izango eta kendu beharra zegoela adierazi zioten erretoreari. Hark, ordea, beldurra zela eta, kasurik ez zien egin.

Beraz, 7-10 pertsona inguruko talde bat, meza egun batean sartu eta Burgosko banda militarra ereserkia jotzen hasi zenean, banaka-banaka eta zalaparta galanta sortuz, elizatik atera ziren. Ordutik aitzin, ez omen zen berriro ereserkirik abestu mezetan. Horrelako ekintzek, bazutela baliorik harrotasunez gogoratzen du Mirenek.

Errepresioaren aurka eta guztion eskubide zibil eta sozialen alde ez ezik, militantzian ziharduten emakume askok emakume izateagatik jasaten zituzten zapalkuntzei ere heldu zieten, gai hauek ere beraien espazioa izan zuten.

Horregatik hain zuzen, emakumeen parte hartzea ere ezinbestekoa izan zen sindikalgintzan. Azpeitian, emakumeak soldatapeko lanean hasi zirenean, hauen baldintzak hobetzeko asmotan, lan ugari egin zuten. Besteak beste, borroka horien ondorioz lortu zen Azpeitian Uztaro izeneko, lehen haurtzaindegia irekitzea, 1975ean (gaur egun oraindik jarraitzen du). Garai hartako emakumeen baldintzak, oso bestelakoak ziren.

Gaur egun ez bezala, emakumeek lan arloan aritu eta ondoren politika egiten zuten, bileraz bilera joanda. Horren adierazle zen, Uztaro haurtzaindegiaren ordutegia goizeko 8etatik gaueko 9etara izatea astelehenetik ostiralera. Asko, larunbatetan seme alabekin joaten ziren lanera, haurtzaindegia itxita zegoelako. Hots, emakumeen lan munduratzak etxeko lanen birpentsatzea ere ekarri zuen ezinbestean.

Jendarteko injustizia ezberdinen aurkako borroka ezinbestean ekarri zuen emakumeen egoeraren inguruan ere jardutea “*zergatik egon behar dugu 2. mailan emakumeak?*” galdetzen zioten beraien buruei Azpeitiko emakumeek. Formatu eta espazio politiko propioa sortu zuten: Mugimendu feminista. Mugimendu feministatik lehen lerrora ekarri zituzten emakumeen bizitzak zeharkatzen zituzten gaiak.


Feminismoak urte luzez indar handia izan du Azpeitian eta horren ondorioa dira Azpeitiko Parekidetasun Arloaren sorrera, Emakumeen Mahaiaren egungo egitura, Emakumeen Txokoa izatea eta parekidetasuna lortzera begirako proiektu eta egitasmo ugariren diseinua.

Historia luzea du Azpeitiko Mugimendu feministak eta beste horrenbesteko ibilbidea opa diogu...

GORA BORROKA FEMINISTA!

ITXIERA

Ibilbidearen itxiera, hasiera da aldi berean. Atzera begira jartzeak aurrera egiteko indarra ematen digulako. Ibilbidean zehar ezagutu ditugun emakumeen ekarpena gugan ere badagoelako. Azpeitia feminista bat egiten jarraitzeko ezinbestekoa izango delako elkarrekin bidea egiten jarraitzea, aitortzatik eta ahalduntzetik.





ESKERTZAK

Amaitzeko, ikerketa-prozesuan lagundu duten eta eskuzabaltasunez zuen esperientziak, bizipenak, iritziak, pasadizoak, gogoetak, ideiak eta emozioak partekatu dituzuen emakume guztiei, eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu. Zuen historia pertsonal eta kolektiboan sartzen utzi gaituzue. Zuen parte-hartze aktibo eta eskuzabalak biziki aberastu du Azpeitiko emakumeen memoria berreskuratzeko “*Matazak*” proiektua. Zuen iraganaren zatiak partekatzeko erakutsitako ausardiak aukera eman digu zuen esperientzien aberastasuna eta aniztasuna sakonago ulertu zein balioesteko. Zuen historiek arrasto ezabaezina utzi dute, oraina ulertzeko ezinbestekoa baita nondik gatozen ezagutzea. Laburrean esanda, partekatutako guztiagatik, zuen kemenagatik eta Azpeitiko emakumeen oroimena berreskuratzeko bidean funtsezkoa izateagatik, eskerrak ematen dizkizuegu. Beraz, eskerrik asko zuei: elkarriketetan parte hartu duzuen dozenaka emakumeei, zuek gabe proiektu hau ez litzateke posible izango.

Bestalde, gure esker ona adierazi nahi diegu ez bakarrik hitz egin duten ahotsei, baita horiek jasotzeaz arduratu diren emakume konprometitu guztiei ere. “*Matazak*” proiektua, ez da soilik bizipenak partekatzea erabaki zuten ausarten emaitza, baita istorio horiek guztiak biltzen eta zaintzen jardun diren emakume nekaezinen emaitza ere. Gainera, ezin aipatu gabe utzi elkarrizketen landa-lanean murgildu aurretik, ahalegin handia egin dela: informazioa bildu, elkarrizketatzeko emakumeak identifikatu, ibilbidea diseinatu... Horretarako talde iraunkorra osatu ez bazen ere, joan-etorrian ibili den emakume andana egon da. Hasierako urrats horiek funtsezko zimenduak izan dira, eta, horiei esker, proiektu hau taxutu eta erabakitasunez aurrera eramanez ahal izan da. Beraz, gure esker ona adierazi nahi diegu ahalegin baloraezin honetan parte hartu duzuen guztiei eta prozesua aurrera eramateko lanean aritu den talde eragileko emakumeei, egindako lanagatik. Zuen jakintzak eta kemenak hornitu ditu proiektua eta prozesua berau.

Berebat, ezin aipatu gabe utzi proiektu honetan funtsezkoak ziren bestelako alderdietan kolaboratu duten guztiak. Zuen dedikazioa ezinbestekoa izan da Azpeitiko emakumeek partekatutako esperientziak honelako proiektu sendoan bihurtzeko. Eskerrik asko Farapi koop. dinamizazioagatik, Kulturaz koop. audioen grabazio eta ekoizpenagatik, Axpi irudiengatik, Amaia San Vicente eta Erika Olaizola ahotsengatik, Alaitz Olaizola testuengatik, Azpeitiko Udala laguntzagatik, Emakumeen Txokoa koordinazioagatik eta Emakumeen Mahaia ideia sustatzeagatik.

Eskerrik asko zuetako bakoitzari, Azpeitiko emakumeen oroimena berreskuratzen hasteko zutabeak izan zaretelako.

Jarrai dezagun haritik tiratzen eta matazak askatzen.

© **Testua:**

© Irudiak, diseinua eta maketazioa:

Ainara Azpiazu Aduriz Axi

Argitaratzailea:

Azpeitiko Udala

www.azpeitia.eus

ISBNa:

Lege Gordailua:

